

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3530

385/2013 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5.1 artikulua ezartzen duenez, arreta emateko eta erantzukizun publikoko sare publikoa da Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema, eta haren helburua da pertsona, familia eta talde guztiak gizartera daitezten eta gizarte autonomia eta gizarte-ongizatea lor dezaten laguntzea; horretarako, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuko du, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 6. artikulua ezartzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua, betiere beste sistema eta politika publikoekin lankidetzan eta haiekin koordinatuta, biztanleria osoaren gizarte-ongizatea da, eta haren helburu nagusietako bat bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonak, familiak eta taldeak gizarteratzeko aukera sustatzea da. Helburu horiek lortzeko, gizarte-zerbitzuen arloan arreta behar duten gizarte-beharrian aurkitzeko mekanismoak artikulatuko dira.

Gizarte Zerbitzuei buruzko legearen 27. artikulua ezartzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzu eta ekipamendu guztiek, titulartasun publikoek nahiz pribatu itundukoek, modu koordinatuan jardungo dute, sistemaren benetako bateratzea eta kohesioa bermatzeko, eta baita erantzukizun publikotik abiatuta, sistemaren batasuna bermatzeko ere.

Bigarren paragrafoan xedatzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integraturiko zerbitzuak lehen mailako arretako eta bigarren mailako arretako zerbitzuen artean egituratuko dira. 22.1 artikuluan zerrendaturiko zerbitzuek, hau da, lehen mailako arretako direnek, gizarte-bazterkeriarekin loturiko premiei erantzungo diete; besteak beste, arreta berezia jarrita gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerei, udalaren gizarte-zerbitzuek zerbitzu horiek hornitu eta emango dituztela bermatuta. 22.2 artikuluan zerrendaturiko gizarte-zerbitzuek, hau da, bigarren mailako arretako bazterketa egoeretatik eratorritako premiei erantzungo diete, besteak beste, eta foru-arloko gizarte-zerbitzuek zerbitzu horiek hornitu eta emango dituztela bermatuko da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 20. artikulua ezartzen duenez, gizarte-zerbitzuen esku-hartze irizpideen homogeneotasuna bermatze aldera, euskal administrazio publikoek balioespeneko eta diagnostikoko tresna tekniko erkideak aplikatuko dituzte.

Artikulu horren hirugarren puntuari jarraiki, tresna komun horiek Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu, erregelamendu bidez, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko dituen esku-menak baliatuta, foru-arloan zein udal-arloan.

Adierazitakoari jarraiki, dekretu honen bidez onartzen da bazterketa balioesteko tresna teknikoa, eta tresna hori, adierazleen sistema bati jarraiki, baliagarria izango zaie udal- eta foru-arloko gizarte-zerbitzuei irizpide erkideekin balioesteko gizarte-bazterkeriako egoerak (intentsitate-maila desberdinekin: arina, apala eta larria) edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak ote dauden.

Horren ondorioz, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko uztailaren 16an eginiko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen da. Dagokion testua eranskinean biltzen da, eta udal- eta foru-arloko gizarte-zerbitzuek nahitaez erabili beharko dute gizarte-bazterkeriako egoerak edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak egon litezkeen balioesteko.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasita izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko uztailaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

UZTAILAREN 16KO 385/2013 DEKRETUAREN ERANSKINA

GIZARTE BAZTERKERIAREN BALIOESPENA

TRESNA APLIKATZEAREN ONDORIOZKO EGOERAK

Tresna hau aplikatzearen ondorioz, honako diagnostiko-kategoria hauek eratorriko dira:

1.– Gizarteratzea: Gizarteratze-egoera kausa askotarikoa da, pertsonak egungo gizarte-babeseko sistemak behar bezala baliatzearekin du zerikusia, baita pertsona horiek herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak baliatzeko beharrezko informazioa erabiltzeko duten erraztasunarekin ere. Harremanetarako dituzten gaitasun pertsonal eta sozialekin eta parte-hartze sozialekin ere badauka zerikusia.

Pertsonen gizarteratzea ez da ikuspegi materialetik soilik ulertu behar, hau da, ondasun eta zerbitzuak sortu eta kontsumitzeko lan-merkatuan parte hartzearekin lotuta. Gizarteratzeak, ekoizpenean eta gizarte-ondasunen kontsumoan pertsonen aktibazioa inplikatzeko gain, gizartearen parte-hartze aktiboa eskatzen du, eta horrekin batera, herritar diren aldetik horretaz jabetzea, aukeratzeko eta erabakiak hartzeko duten gaitasuna, komunitateko kide gisa duten inplikazioa, eta abar.

2.– Gizarte-bazterkeriako arriskua: pertsona bat gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran egon liteke zenbait ezaugarri edo faktore pertsonal edo sozial daudenean edo ez daudenean, betiere haien arabera aurkako ondorioak agertzeko probabilitateak hazten badira, azkenean gizarte-bazterkeriako egoera edo prozesuak eraginez.

Gizarte-bazterkeriako arriskua hazi egiten da prekarizazioa gertatzen den heinean, hots, desegokitzapen erlatibo bat sortzean bizi-estandar arruntekiko, pertsonen bizitzari egonkortasuna ematen dioten zenbait faktoretan agertzen den nolabaiteko segurtasunik ezak eraginda. Arriskua hazi egiten da prekarizazioak baliabide pertsonalak eta gizarte-harremanak eraginpean hartzen dituen neurrian, gizarte-laguntza ematen baitute.

3.– Gizarte-bazterkeria: pertsonak gizarte-bazterkeriako egoeran egongo dira, iraun egiten duten gabezia ugarik haien bizi-baldintzei eta bizikidetzaren baldintzei eragiten dietenean. Gabezia horiek metatzen direnean, gizarte-bazterkeriako egoera bat eragiten dute, zuzenean baliabide pertsonalekin, harremanezko baliabideekin eta baliabide materialekin loturikoa.

Egoera horretan dauden pertsonak zailtasun handiak dituzte komunikatzeko eta bizitza sozial eta komunitarioan parte hartzeko. Arazo larriak dituzte euren gaitasun eta trebetasun sozial eta pertsonalekin euren premiei erantzuteko erantzukizuna beren gain hartzeko. Komunikazio- eta harreman-isolamendura eramaten ditu horrek guztiak.

Bazterketa dimentsio askotakoa da, eta, hori horrela, zenbait pertsona edo talde jakin batzuk gizarteratzeetik eta, horrenbestez, herritar identitatea osatzen duten truke, praktika eta eskubide sozialekin parte hartzeetik kanpo geratzen dira.

Gizarte-bazterkeria ez dago soilik finantza-baliabideen gabeziarekin lotuta, eta ez da mugatzen enpleguaren munduan soilik parte hartzera; beste zenbait esparrutan ere nabarmentzen eta agertzen da, hala nola etxebizitza, bizikidetzaren hezkuntza, osasuna edo zerbitzuak baliatzean.

Gizarte-bazterkeriaren intentsitatea honelakoa izan daiteke:

– ARINA: deserrotze hasierakoa edo arina. Senitartekoekin edo laguntza-sarearekin harreman hauskorak dituzten pertsonak.

– APALA. Deserrotze-fase aurreratua. Oinarrizko lotura sozialekin hautsi dituzten pertsonak.

– LARRIA: ez du gizartean parte hartzen. Harreman sozial eta afektiboen eskasia edo absentzia.

TRESNAREN KALKULU SISTEMA

Adierazleen zerrenda:

Dimentsioen arabera ordenatutako adierazleen zerrenda bat biltzen du tresnak, aldi berean funtsezko bost esparrutan antolaturiko adierazleak izanik:

- Ekonomia, lan eta egoitza arlokoa
- Bizikidetzaren arlokoa
- Pertsonala
- Osasun arlokoa
- Gizarte arlokoa

Gizarte.net atariaren bidez egongo da erabilgarri bazterketa balioesteko aplikazio informatiko erkidea.

Adierazleei esleituriko puntuazioa:

Hiru balio posiblerekin puntuatu behar da adierazle bakoitza: 0, 1 edo 2.

– 0 balioak adierazten du, adierazle horren edukiari dagokionez, pertsona egoera positiboan edo, gutxienez ez-problematikoan dagoela. Horren ondorioz, gizarteratze-eremuan dagoela esan dezakegu.

– 1 balioak prekaritatea edo nolabaiteko zailtasunak daudela esan nahi du. Alderdi horretan pertsona bazterketa-eremuan dagoela hartzen dugu kontuan.

– 2 balioak, azkenik, gabezia eta arazo larriak adierazten ditu. Adierazle horri dagokionez, bazterketa-eremuan dago pertsona.

Aplikaturiko irizpideak:

Gizarte-bazterkeriako egoerak balioesteko, bi eremu hartzen dira kontuan:

1. irizpidea: gabezia pertsonal eta harremanezkoekin loturikoa. Lehen eta bigarren mailako sareetatik datorren gizarte-laguntzarik ez ote duen balioesten dugu, baita baliabide pertsonalik ez ote duen ere. Bizikidetzaren arloko, arlo pertsonaleko eta gizarte-arloko esparruetako adierazleak izaten dira kontuan.

2. irizpidea: autonomia pertsonal eta ekonomikoa gutxitzeari buruzkoa da, eta ekonomia eta lan arloko, bizikidetzaren arloko, arlo pertsonaleko eta osasunaren arloko adierazleak balioesten ditu.

1. irizpidea

Lehen irizpidean, bizikidetzaren arloko, arlo pertsonaleko eta gizarte arloko adierazleak biltzen dira gizarte-bazterkeriako egoeren eta horrelakoak ez diren egoeren «mozketaren puntuak» erabakitzeke. Honako hauek dira aukerak:

A AUKERA: 0 balioa duten 8 adierazle baino gehiago dauzkaten pertsonak (gizarteratze-eremuan) gizarteratze-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran egon daitezke.

B AUKERA: 0 balioa duten 8 adierazle edo gutxiago dauzkaten pertsonak (gizarteratze-eremuan) gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran edo gizarte-bazterkeriako egoeran egon daitezke.

Egoeren arteko ezein ez da argi zehazten oraindik ere. Horretarako, bigarren irizpidea balioesten da, eta horri esker zehaztu ahalko da gizarteratze-, arrisku- edo bazterketa-egoera bat ote den.

2. irizpidea

Bigarren irizpide honetan, ekonomia-arloko eta lan-arloko esparrua, bizikidetz-esparrua, esparru pertsonala eta osasun-arloko esparrua biltzen dira, eta 1 edo 2 balioekin –pertsonak gabeziak pairatzen dituela adierazten dutenekin– barematuriko adierazleen ehunekoa kontabilizatzen da. Lau esparruetatik bik honako taula honetan ezartzen den gutxieneko gabezia-ehunekoa gainditzen dutela egiaztatu behar da:

Bizi-esparrua	Dimentsioak	Gabezia dagoela kontuan hartzeko gutxienekoa
Bizikidetz	Ostatu- eta etxebizitza-egoera	% 100
Ekonomia, lan eta egoitza arlokoa	Egoera ekonomikoa.	% 60
	Okupazio- eta lan-egoera.	
	Egoitza-egoera	
Pertsonala	Hezkuntza, prestakuntza, informazioa eta trebakuntza.	% 40
	Enplegurako baliabide pertsonalen egoera.	
Osasuna	Osasunaren egoera.	% 50
	Lan-ezintasuneko, desgaitasuneko eta mendekotasuneko egoera.	

Adibidez, honako emaitza hauek lortzen badira pertsona baten balioespenean:

- ekonomia, lan eta egoitza arloko adierazleen % 65 1 edo 2rekin puntuatuta
- esparru pertsonaleko adierazleen % 50 1 edo 2rekin puntuatuta

2. irizpidea betetzen duela onartuko da, pertsonak gabeziak pairatzen baititu lau bizi-esparruetatik bitan.

Bi irizpideen konbinazioa:

Bi irizpideen konbinazioak egoera bakoitza zehazten du:

– Gizarteratze-egoerak:

A egoeran egotea (0 balioak dituzten 8 adierazle baino gehiago ditu pertsonak 1. irizpideko hiru bizi-esparruetan), eta 2. irizpidea ez betetzea (ez du gabeziarik 2. irizpideko lau bizi-esparruetatik bitan).

– Gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak:

– A egoeran egotea (0 balioak dituzten 8 adierazle baino gehiago ditu pertsonak 1. irizpideko hiru bizi-esparruetan) eta 2. irizpidea betetzea (gabeziak ditu 2. irizpideko lau bizi-esparruetatik bitan); edo

– B egoeran egotea (0 balioak dituzten 8 adierazle edo gutxiago ditu pertsonak 1. irizpideko hiru bizi-esparruetan) eta 2. irizpidea ez betetzea (ez du gabeziarik 2. irizpideko lau bizi-esparruetatik bitan).

– Gizarte-bazterkeriako egoera:

– B egoeran egotea (0 balioak dituzten 8 adierazle edo gutxiago ditu pertsonak 1. irizpideko hiru bizi-esparruetan) eta 2. irizpidea betetzea (gabeziak ditu 2. irizpideko lau bizi-esparruetatik bitan).

Pertsona gizarte-bazterkeriako egoeran dagoela irizten badiogu, egora horren INTENTSITATEA ere kalifikatu ahalko dugu. 1. irizpideko 2. balioa duten adierazleen kopurua kontabilizatuko da horretarako, honela kalifikatuta:

2 balioa daukaten bi adierazle baino gutxiago: ARINA

2 balioa daukaten 2-5 adierazle:APALA

2 balioa daukaten bost adierazle baino gehiago: LARRIA

Eskeman emanda, honako hau litzateke funtzionamendua:

	1. IRIZPIDEA A AUKERA	1. IRIZPIDEA B AUKERA
	8 adierazle baino gehiago 0 balioarekin:	8 adierazle edo gutxiago 0 balioarekin:
2. Irizpidea betetzen ez badu	Gizarteratzea	Bazterketa arriskua
2. irizpidea betetzen badu	Bazterketa arriskua	Bazterketa
		1. irizpidea berriz egiaztatzea: arina apala larria

Azken emaitza:

Tresnak eskaintzen duen azken emaitza behin betiko balioespenaren adierazpena da, adibidez, «gizarte-bazterkeria apala»; zifrarik eskaini gabe.

ADIERAZLEEN ZERRENDA

ZENBAKIZKO BALIOAK

Adierazle guztietan ere balio berak esleitzen zaizkie hiru erantzun-aukerei: 0, 1 eta 2, hurrenez hurren, aukera horien ordenari jarraiki.

ADIERAZLEEN ZENBAKIKUNTZA:

Ordena-zenbakia bazterketaren balioespen-tresnan	Zenbakia diagnostikoan	Adierazlearen testua
--	---------------------------	-------------------------

EKONOMIA, LAN ETA EGOITZA ARLOA**1. DIMENTSIONA.– EGOERA EKONOMIKOA****DIRU-SARRERAK****1. 1.1 Pertsonak diru-sarrerak ba ote dituen**

- Diru-sarrera erregularrak.
- Diru-sarrera irregular edo noizbehinkakoak.
- Ez du diru-sarrerarik.

1.a 1.1.a Bizkidetza-taldeak diru-sarrerak ba ote dituen

- Diru-sarrera erregularrak.
- Diru-sarrera irregular edo noizbehinkakoak.
- Ez du diru-sarrerarik.

GASTUAK**2 1.5 Etxebizitza- edo ostatu-gastuak (pertsona eta haren bizikidetza-taldea)**

- Etxebizitza partikularreko ostatu-gastuak ordain ditzakete.
- Zailtasunak etxebizitza partikularreko ostatu-gastuak ordaintzeko.
 - Atzerapenak ordainketetan.
 - Martxan daude etxegabetzeko, enbargatzeko edo hornidurak eteteko prozesuak.
- Ezin dituzte ordaindu ostatu- eta etxebizitza-gastuak. Kasuak:
 - Etxebizitza galtzea, enbargoa edo etxegabetzea dela-eta.
 - Ostatu edo etxebizitza kolektibo ez-instituzionalak baliatzen dituzte.
 - Ezin dituzte ostatu-gastuak ordaindu etxebizitza kolektibo ez-instituzionalean.

3 1.6 Gastuak beste oinarrizko ondasun eta zerbitzuetan

- Oinarrizko ondasun eta zerbitzuetako gastuak ordain ditzakete.
- Zailtasunak gastuak ordaintzeko:
 - Gastuak murrizten dituzte oinarrizko ondasun eta zerbitzuetan.
 - Atzerapenak ordainketetan eta zorretan.
 - Zailtasunak ezohiko eta ustekabeko gastuak ordaintzeko.
- Gastuak ordaintzeko ezintasuna:
 - Ezin diete oinarrizko premiei erantzun.
 - Zorpetzea. Ondasunak galtzea.
 - Ezin diete erantzun ezohiko eta ustekabeko gastuei.

4 1.7 Gastuak oinarrizkoak ez diren ondasun eta zerbitzuetan

- Zailtasunik ez oinarrizkoak ez diren ondasun eta zerbitzuekin
 - Ordain ditzakete.
 - Oinarrizko gastuak ordaintzeko mugatzen dituzte.
 - Ez dituzte egiten ezin dituztelako ordaindu.
- Zailtasunak oinarrizkoak ez diren gastuekin.
 - Oinarrizko gastu batzuk murrizten dituzte premiarik gabekoak ordaintzeko.
 - Zor txikiak eragiten dituzte premiarik gabeko gastuak ordaintzeko.
- Oinarrizkoak ez diren gastuei buruzko arazoak
 - Oinarrizko gastu batzuk ordaindu gabe uzten dituzte premiarik gabekoak ordaintzeko.
 - Etxebizitza edo prestazioak eskuratzeko eskubidea galtzen dute premiarik gabeko gastuak ordaintzeko.

2. DIMENTSIOA.– OKUPAZIO ETA LAN EGOERA**5 2.1 Egoera okupazioari eta enpleguari dagokienez**

- Arazorik ez esparru honetan, edo ez dagokio hori balioestea. Egoera posibleak:
 - Lanean ari da.
 - 16 urtetik beherakoa da eta hezkuntza-sisteman jarraitzen du.
 - 16 urtetik gorako ikaslea.
 - Pentsionista edo lan-adina gainditu duen pertsona.
 - Kapitalagatiko diru-sarreraren hartzailea.
 - Etxea, seme-alabak edo beste pertsona batzuk zaintzen dituen pertsona.
- Egoera eskasa:
 - Langabea, lehendik lan egindakoa.
 - Langabea, lehendik inoiz ere lan egin gabea.
 - Ezkutuko lan-jardueretan okupatutakoak.
- Egoera larria:
 - Lan-jarduera paralegal eta ilegaletan okupatutakoak.
 - Lan-adinean (16-65 urte) lanerako prestasunik gabe.
 - Lanean ari den 16 urtetik beherakoa.

3. DIMENTSIOA.– EGOITZA EGOERA**6 3.1 Erroldatzea**

- Bizi den udalerrian erroldaturiko pertsona:
 - Lurralde historikoko beste udalerrri batean erroldaturikoa.
 - EAEko beste udalerrri batean erroldaturikoa.
 - Beste Autonomia Erkidego bateko udalerrian erroldaturikoa.
- Zailtasunak erroldatzearekin / itxurazko erroldatzea:
 - Izapide-fasean, lortzeko espektatiba positiboarekin.
 - Establezimendu kolektiboan erroldaturikoa.
- Ez dago erroldatuta:
 - Egondakoa da. Orain ez dauka beharrezko dokumentazioa.
 - Erregistro-eskaera ebazteko espektatiba negatiboa.
 - Erregistro-eskaera negatiboki ebatzi da.

6.a 3.1.a Erroldatuta emandako denbora

- 10 urte.
- 5 urte.
- 3 urte.
- 2 urte.
- Urtebete.
- 6 hilabete.
- 6 hilabete baino gutxiago.

7 3.4 Atzerritarraren identifikazio-txartela edo bisatua edukitzea

- Indarrean dagoen txartela dauka.
- Txartela iraungita dauka.
- Ez dauka txartelik:
 - Galdu egin du, lapurtu egin diote edo baliogabetuta dauka.
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.

EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: ekonomia, lan eta egoitza arlokoa**T.1 T.1 Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak**

- Pertsona onuraduna da edo ez ditu behar.
- Ez da onuraduna, baina izan daiteke:
 - Izapide-fasean, ebazpen positiboko espektatibarekin.
 - Eskakizunak betetzen ditu; baliatu ahalko luke eskatuz gero.
 - Etendako prestazioa.
- Ez da onuraduna:
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.
 - Izapide-fasean, emakida negatiboko espektatibarekin.

T.2 T.2 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

- Pertsona onuraduna da edo ez du behar.
- Ez da onuraduna, baina izan daiteke.
 - Izapide-fasean, espektatiba positiboarekin, nahitaezko dokumentazioa biltzen ari da.
 - Eskakizunak betetzen ditu, baliatu ahalko luke eskatuz gero.
 - Etendako prestazioa.
- Ez da onuraduna:
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.
 - Izapide-fasean, emakida negatiboko espektatibarekin.

T.3 T.3 Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak baliatzeko eskakizunak

- Pertsona onuraduna; eskakizunak betetzen ditu.
- Partzialki betetzen ditu eskakizunak, edo laster bilduko dituela aurreikusten da:
 - Titularra prestazio eta zerbitzu guztiak baliatzeko aukerarik gabe.
 - Erroldatuta egon beharreko aldia betetzeko zain.
- Ez ditu biltzen. Premiazko egoeretan soilik bermatzen da arreta.

T.4 T.4 Doako justizia

- Eskubide horren onuradun den pertsona.
- Ez da onuraduna, baina izan daiteke:
 - Izapide-fasean, ebazpen positiboko espektatibarekin.
 - Eskakizunak betetzen ditu; baliatu ahalko luke eskatuz gero.
- Ez da onuraduna:
 - Ez ditu eskakizunak betetzen.
 - Izapide-fasean, emakida negatiboko espektatibarekin.
- Ez da bidezkoa.

BIZIKIDETZA ESPARRUA**4. DIMENTSIOA.– OSTATU ETA ETXEBIZITZA EGOERA****8 4.1 Ostatu-egoera**

- Etxebizitza edo ostatu familiar partikularrean ostatu harturiko pertsona.
 - Etxebizitza edo ostatu propioa.
 - Jatorrizko familiaren etxebizitza edo ostatua.
 - Lehen mailako sareko etxebizitza edo ostatua, familiarra edo ez-familiarra.
- Etxebizitza kolektiboan ostatu hartutako pertsona.
 - Ostatu kolektibo ez-instituzionala.
 - Pentsioak, hostalak.
 - Ostatu hartzea ostatuan, apopilotzan.
 - Etxebizitza edo ostatu partikular familiarra partekatzen du.
 - Babes formaleko sistemek finantzaturikoa.
 - Ostatu kolektibo instituzionala.
 - Gizarte Zerbitzuak.
 - Sanitarioa – Sozio Sanitarioa.
 - Ostatu kolektibo instituzionala, askatasun-murrizketa edo -mugarekin.
 - Sanitarioa.
 - Espetxea.
 - Atzeritarrentzat.
- Ostaturik gabe edo ostatu baztertzaillean.
 - Kale-egoeran.
 - Aterperik gabe. Gune publikoetan bizi da.
 - Aterpetxeetan ematen du gaua. Egun osoa gune publikoetan.
 - Kale-ibilbideak.
 - Infraetxebizitzan.
 - Irisgarritasun gabeko etxebizitzan (barrukoa edota kanpoko).
 - Etxeko indarkeriaren biktima, etxebizitza familiarrean erasotzailearekin jarraitzen duena.
 - Ostatua bat-batean galtzea.
 - Iragarritako galera, 8 hilabete baino lehenagorako aurreikusitakoa.

9 4.2 Ostatuaren egonkortasuna**9.1 4.2.1 Etxebizitza edo ostatu familiar partikularrean ostatu harturiko pertsonak**

- Aldaketarik gabe.
- Egonkortasun eskasa: 2 urtetik 5era bitartean.
 - Gaur egun egonkortasuna.
 - Laster aldaketa izateko aurreikuspena.
- Egonkortasunik gabe.
 - Aldaketak bi urtetik beherako aldietan.
 - Aldaketak sarritan, 3 edo 4 hilean behin.
 - Ez dute helbide finkorik.

9.2 4.2.2 Pertsonak ostatu kolektibo instituzionalean

- Egonkortasuna, eta aldaketa-aurreikuspenik gabe.
- Egonkortasuna, aldaketa-aurreikuspenarekin:
 - Ostatu kolektibo instituzionala.
 - Egonaldi-epea amaitzea egonaldi labur eta ertaineko harrerako gizarte-zerbitzuetan.
 - Egonaldi-epea amaitzea honako hauengatik:
 - Adina.
 - Alta medikoa.
 - Hutsegite larriengatiko zehapen-espeditentea.
 - Ostatu kolektibo instituzionala, askatasun-murrizketarekin.
 - Kondenaldia amaitzea.
 - Baldintzapeko askatasuna.
 - Hirugarren maila.
 - Barneratzea agindu judizial bidez amaitzea.
- Eskasa edo egonkortasunik gabe:
 - Ospitale-alta eta -baja jarraituak.
 - Egonaldi-epea amaitzea egonaldi laburreko harrera-zerbitzuetan.
 - Beste batzuk.

9.3 4.2.3 Ostatu gabeko edo ostatu baztertzailan dauden pertsonak

- Urte 1 baino gutxiago egoera horretan.
- Urte 1etik 2 urtera.
- 2 urtetik gora.

5. DIMENTSIOA.– LOTURA AFEKTIBOAK ETA GIZARTE BABESA JASOTZEA**10 5.1 Harremanak eta lotura afektiboak ba ote dituen**

- Harremanak eta lotura afektibo sendoak ditu gutxienez 8 pertsonarekin.
- Harreman gutxi eta lotura afektibo ahulak ditu 8 pertsona baino gutxiagorekin.
- Ez du lotura afektiborik.

11 5.2 Gizarte-laguntza jasotzea

- Nahiko gizarte-laguntza jasotzen du edo ez du behar.
 - o Materiala.
 - o Instrumentala.
 - o Kognitiboa.
 - o Emozionala.
- Gizarte-laguntza eskasa jasotzen du:
 - o Materiala.
 - o Instrumentala.
 - o Kognitiboa.
 - o Emozionala.
- Ez du gizarte-laguntzarik jasotzen:
 - o Materiala.
 - o Instrumentala.
 - o Kognitiboa.
 - o Emozionala.

12 5.3 Lehen mailako sareen gizarte-laguntza: familiakoak eta familiakoak ez direnak

- Lehen mailako laguntza-sareak ditu.
- Lehen mailako sare gutxi dituen pertsona. Laguntza mugatua edo aldizkakoa.
 - Familia-laguntzako sareen saturazioa.
 - Aldi baterako eta txandakako laguntza.
 - Familia-sarearen interesik eza.
 - Familia-banantzea, emigrazioagatik.
 - Aldentzea, urruntze-aginduaren ondorioz.
 - Ditzuten arazoak direla-eta, laguntza eskaini ezin dioten pertsonekin ditu harremanak.
- Ez du gizarte-laguntzako lehen mailako sarerik.
 - Bere senitartekoak eta lagunak ez dira laguntza-sare bat.
 - Ezin diote laguntzarik eman.
 - Laguntzari uko egiten dioten pertsonak dira.
 - Deslotuta daude.
 - Ez du senitartekorik ezta lagunik ere.

13 5.4 Bigarren mailako sare komunitarioen gizarte-laguntza

- Bigarren mailako laguntza-sare komunitarioak ditu.
- Bigarren mailako laguntza-sare komunitarioekiko lotura-hauskortasuna.
- Ez du bigarren mailako laguntza-sarerik.

Bigarren mailako sare komunitarioen motak (1. eta 2. aukerak):

 - o Boluntariotza.
 - o Merkataritza txikia eta ertaina.
 - o Kultura-, erlijio- eta kirol-elkarteak.
 - o Profesionalak, zerbitzuetako edo gizarte-ekintzako langileak.
 - o Gizarte-izaerako elkarte-erakundeak.
 - o Beste batzuk.

14 5.5 Bigarren mailako sare instituzionalen gizarte-laguntza

- Bigarren mailako laguntza-sare instituzional bat badu/Ez du behar.
 - Gizarte-sarea eta laguntza instituzional etengabea duen pertsona da.
 - Askatasuna murrizten duen laguntza instituzionala du.
 - Ez du laguntzarik behar.
- Bigarren mailako sare instituzionalen arreta txikia:
 - Ezohiko laguntza instituzionala: osotasun fisikorako eta psikikorako arrisku-egoerak.
 - Laguntza instituzional ez jarraitua: gizarte-arretako gertakariak sortzean baino ez.
- Ez du bigarren mailako laguntza-sare instituzionalik.

EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: bizikidetzeta-esparrua

T.5 T.5 Etxebizitza duin eta egokirako eskubidea

- Etxebizitza duin eta egokirako eskubideaz gozatzen du.
- Gozatzeko zailtasunak.
- Ez du eskubidea gozatzen.

T.6 T.6 Elikagai-eskubidea senitartekoen artean

- Lortzen du:
 - Epai judizialarengatik.
 - Judizialki onarturik ez izan arren.
- Onarpen judizialik gabe. Aldizka edo partzialki ematen dioten senitartekoak.
- Ez du lortzen.
 - Ez du erreklamatzeko moduko senitartekorik.
 - Ez du judizialki erreklamatu, betebehar hori duten senitartekoak dauden arren.
 - Elikagaien erreklamazioa izapidetzen ari da.
- Ez da bidezkoa.

T.7 T.7 Ezintasun-deklarazioa adin nagusiengan

- Ezintasun-deklarazioa du.
- Deklarazioa izapidetzen ari da.
- Prozedura hasi gabe dago. Deklaratzeko kausa posiblea balioesten ari da.
- Ez da bidezkoa.

T.8 T.8 Zaintza eta babeserako adosturiko babes-figurak

- Guraso-ahal luzatua.
- Guraso-ahal birgaitua.
- Tutoretza.
- Kuradoretza.
- Defentsa judizialak.
- Ez da bidezkoa.

T.9 T.9 Babes-funtzioak gauzatzea

- Betetze egokia.
- Akatsak pertsonaren edo bere ondasunen babesean.
- Ez betetzea, pertsonaz edo ondasunez ez arduratzea.
- Ez da bidezkoa.

T.10 T.10 Adingabeen babesa

- Adingabeen tutoretza edo zaintza.
 - Inoren kargura ez dagoen adingabe atzerritarra, babestua.
- Arrisku-egoeran dagoen adingabea.
- Babesik gabeko egoeran dagoen adingabea, babes-neurririk gabe.
- Ez da bidezkoa.

T.11 T.11 Etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonen babesa

- Babes-aginduarekin, nahi diren eraginak sortzen dituena.
- Babes-agindua dago, baina biktimarentzako arrisku-egoerak jarraitzen du.
- Babes-agindurik gabe.
- Ez da bidezkoa.

PERTSONAREN ESPARRUA**9. DIMENTSIOA.– GAITASUN ETA TREBETASUN SOZIALAK****9.A DIMENTSIOA.– Gaitasun soziala****15 9.A.1 Interakzio eta komunikazioko oinarrizko trebetasunak**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

9.B DIMENTSIOA.– Gaitasun kognitiboa.**16 9.B.1 Oinarrizko gaitasun kognitiboak**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
 - Zailtasuna eta gauzatze txikia.
 - Ez da gauzatzen.
- Gaitasun-zerrenda aukera guztientzat:
- o Hizkuntzaren ulermena eta adierazpena.
 - o Oroimen-gaitasuna (epe labur, ertain eta luzea).
 - o Arreta eta kontzentrazioari eusteko gaitasuna.
 - o Norbere buruari begiratzeko eta bere beharrianak ezartzeko trebetasunak.
 - o Hirugarrenei begiratzeko eta beren beharrianak ezartzeko trebetasunak.
 - o Bere egoera errealismoarekin aztertze gaitasuna.
 - o Kausalitatea zein den jakiteko prozedura.

9.C DIMENTSIOA.– Gaitasun instrumentala**17 9.C.1 Lagunak egiteko trebetasunak**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

18 9.C.2 Lagunei eusteko trebetasunak

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

19 9.C.3 Baliabide komunitarioak erabiltzeko trebetasunak

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

20 9.C.4 Osasun-aginduei jarraitzeko trebetasunak

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

9.D DIMENTSIOA.– Beste gaitasun eta trebetasun batzuk

21 **9.D.1** **Norbere burua zaintzeko trebetasunak (higienea, arropa, sendagaiak, eta abar)**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

22 **9.D.3** **Erabakiak bere kabuz hartzeko trebetasunak**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

23 **9.D.6** **Enplegu bat bilatzeko trebetasunak**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

24 **9.D.7** **Enplegu bati eusteko trebetasunak**

- Gauzatzen du eta praktikan jartzen du.
- Zailtasuna eta gauzatze txikia.
- Ez da gauzatzen.

10. DIMENTSIOA.– HEZKUNTZA – PRESTAKUNTZA – INFORMAZIOA – TREBAKUNTZA

25 **10.1** **Bukaturiko ikasketen maila**

- Analfabetoa edo analfabeto funtzionala.
- Ikasketarik gabe.
- Eskolaurrea.
- Lehen mailako ikasketak.
- Profesionalak.
- Bigarren mailakoak.
- Erdi- edo goi-mailakoak.
- Goi-mailakoak.

26 **10.2** **Hartzen ari den heziketa**

26.A.I 10.2.1 Adingabeen eskolatzea, derrigorrezko eskolatze-adinean (6 urtetik 16 urtera)

- Eskolatuta dago.
- Eskolatuta zailtasunen batekin: absentismoa edo ikasketak utzi izanaren beste adierazgarri batzuk.
- Eskolatu gabea.
 - Eskola-porrota.
 - Garaia baino lehen uztea.

26.A.II 10.2.1.a Eskola-errendimendua

- Normala.
- Eskola-errendimendua estandarraren parekoa. Arazorik gabe.
- Eskasa. Arrazoiak, ustez:
 - o Ikasteko zailtasun txikiak:
 - Arreta: kontzentrazioa, dispertsioa...
 - Hunkiberatasuna: egokitasun emozionalik ez, autoafirmazio eskasa...
 - Oroimena: finkatzeko zailtasunak.
 - Pertzepzioa: forma geometrikoen erreprodukzioa, irudia-hondoa, eta abar.
 - o Interes edo motibazio txikia.
 - o Osasuna: tratamendu mediko luzeak, errehabilitazioa, ospitaleratzeak, susperraldiak.
 - o Ikastetxeen irisgarritasun-zailtasunak.
 - o Ingurune sozio-kulturak kaltetua (aniztasun etnikoa, kulturala, zona degradatuak...).
 - o Beste leku batzuetatik datozen ikasleek hezkuntza-programara egokitzeko arazoak: maila akademikoa, titulazioak...
- Desegokia. Arrazoiak, ustez:
 - o Ikasteko zailtasun larriak:
 - Arreta: kontzentrazioa, dispertsioa...
 - Hunkiberatasuna: egokitasun emozionalik ez, autoafirmazio eskasa...
 - Oroimena: finkatzeko zailtasunak.
 - Pertzepzioa: forma geometrikoen erreprodukzioa, irudia-hondoa, eta abar.
 - o Interesik edo motibaziorik ez.
 - o Osasuna: tratamendu mediko luzeak, errehabilitazioa, ospitaleratzeak, susperraldiak.
 - o Ikastetxeen irisgarritasun-zailtasunak.
 - o Ingurune sozio-kulturak kaltetua (aniztasun etnikoa, kulturala, zona degradatuak...).
 - o Ikasle etorkinek hezkuntza-programara egokitzeko arazoak: maila akademikoa, titulazioak...

26.B 10.2.2 Hartzen ari den lanerako prestakuntza: lan-jarduerarako adina (16 - 65 urte)

- Egiten ari da.
- Izena emanda dago, baina asistentzia irregularra da. Interes txikia, desmotibazioa edo ezintasuna.
- Ez da ezer egiten ari.

27 10.3 EAEko hizkuntza ofizialen bat jakitea

- Badaki.
 - Euskara.
 - Gaztelania.
- Ezagutza eskasa edo desegokia.
 - Euskara.
 - Gaztelania.
- Ez daki.
 - Euskara.
 - Gaztelania.

28 10.6 Errealitate sozial eta kulturalari buruzko informazioa

- Pertsonak badu informazioa:
 - Bere inguruneari buruzko informazio orokorra.
 - Kulturalki onartzen eta arbuiatzen diren ohitura eta portaera-moduei buruzkoa.
- Ez du informazio nahikoa:
 - Bere inguruneari buruzko informazio orokorra.
 - Kulturalki onartzen eta arbuiatzen diren ohitura eta portaera-moduei buruzkoa.
- Ez du informaziorik:
 - Bere inguruneari buruzko informazio orokorra.
 - Kulturalki onartzen eta arbuiatzen diren ohitura eta portaera-moduei buruzkoa.

29 10.7 Gizarte-eskubideei eta gizarte-babeseko sistemiei buruzko informazioa

- Eskubide eta prestazioei buruzko informazio egokia eta nahikoa.
 - Eskubide eta prestazioei buruzko informazio desegokia edo eskasa.
 - Ez du eskubide eta prestazioei buruzko informaziorik
- ZERBITZUEN ESPARRUAK
- Gizarte Zerbitzuak.
 - Sanitatea.
 - Hezkuntza.
 - Lana:
 - Lan-arloko eskubideak.
 - Lan-baimenak (Atzerritartasuna).
 - Etxebizitza.
 - Enplegua.
 - Diru-sarreraren Bermea.
 - Gizarte Segurantza.
 - Atzerritarren asiloa, aterpea.
 - Mendetasuna.
 - Eskubide zibilak. Hainbat aldagai barne hartzen ditu: tutoretza, elikagaiak, homosexualen arteko ezkontza, izatezko bikotea...

30 10.8 Parte-hartze sozialeko zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa

- Egokia eta nahikoa.
- Eskasa edo desegokia.
- Ez du informaziorik.

10.A DIMENTSIOA.– ENPLEGURAKO BALIABIDE PERTSONALEN EGOERA (Lan egiteko adina duten pertsonentzat: 16-65 urte)**31 10.A.1 Lan-merkatuan sartzeko prestakuntza akademikoa**

- Egokia.
 - Akademietan onarturiko titulazioa.
 - Arautu gabeko prestakuntza, baina eskualde horretako estandarrerara egokitua.
 - Bigarren mailako ikasketak.
 - Lanerako prestakuntzako zikloa.
 - Erdi-mailako edo goi-mailako titulua.
- Eskasa edo desegokia.
 - Derrigorrezko irakaskuntza amaiturik, baina eskualde horretako estandarrerako ez da nahikoa.
 - Prestakuntza homologatu gabea; ikasketak atzerrian.
 - Derrigorrezko irakaskuntza amaitu gabe.
 - Duela 20 urte baino gehiago eginiko ikasketak, bertan behera utziak edo eguneratu gabeak. Zona horretako estandarrerako eskasak.
- Ez du prestakuntzarik.
 - Analfabetoa da.
 - Analfabeto funtzionala da.
 - Ikasketarik gabe.

32 10.A.2 Lan-esperientzia

- Esperientzia bai: urtebete edo gehiago.
- Lan-esperientzia eskasa: urtebete baino gutxiago.
- Lan-esperientziarik gabe.

33 10.A.3 Kualifikazioa

- Egokia eta nahikoa.
- Eskasa eta desegokia.
- Lanbide-kualifikaziorik gabe.

34 10.A.4 Enplegurako motibazioa

- Nahikoa.
- Eskasa.
- Ez dago.

11. DIMENTSIOA.– BIZI DINAMISMOAK**35 11.1 Autoestimua, autokonfiantza**

- Nahikoa
 - Oro har, nahi duena lortzeko dituen gaitasunetan konfiantza du.
 - Inguruko egoeretara egokitzeko gai da.
- Ahulezia (kalteberatasuna).
- Distortsionatua:
 - Gehiegizkoa delako: gehiegizko eta neurritz kanpoko konfiantza-sentimenduak.
 - Txikiegia delako: gauza ez izatearen eta balio pertsonalik ezaren sentimenduak.

36 11.3 Aldaketarako motibazioa

- Nahikoa.
- Eskasa.
- Ezdeusa edo hutsala.

37 11.4 Erantzukizuna hartzea

- Erantzukizuna bere gain hartzen duen pertsona.
- Batzuetan hartzen du bere gain.
- Ez du inola ere hartzen.

12. DIMENTSIOA.– BABES SISTEMEN ERABILERA**38 12.2 Bigarren mailako sareen gizarte-laguntza behar du**

- Ez du behar inoiz ez edo ia inoiz ez.
- Kasu batzuetan edo aldizka behar du. Laguntza mota:
 - Instrumentala.
 - Kognitiboa.
 - Emozionala.
 - Materiala.
- Askotan edo beti behar du. Laguntza mota:
 - Instrumentala.
 - Kognitiboa.
 - Emozionala.
 - Materiala.

EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: pertsonaren esparrua**T.11 T.17 Nortasuna egiaztatzea****T.11.a T.17.a Nazionalitate ez atzerritarra: NANA edukitzea**

- Badauka eta indarrean dago.
- Badauka eta iraungita dago.
- Ez dauka: galdu egin du, lapurtu egin diote edo baliogabetuta dauka.

T.11.b T.17.b Atzerriko nazionalitatea: pasaporte edo nazionalitatea egiaztatzen duen beste dokumentazioren bat edukitzea

- Badauka eta indarrean dago.
- Badauka eta iraungita dago.
- Ez dauka: galdu egin du, lapurtu egin diote edo baliogabetuta dauka.

T.12 T.19 Erantzukizun penala

- Ez du auzi penal erabaki gaberik.
- Auzi penal erabaki gabeak ditu. Honako hau ekar dezakete:
 - Askatasuna murrizten ez duten neurriak: isunak, gizartearentzako lanak, erantzukizun zibila...
 - Askatasuna murrizten duten neurriak.
- Neurriren bat betetzen ari da.
 - Askatasuna murrizten ez duten neurriak: isunak, gizartearentzako lanak, erantzukizun zibila...
 - Askatasuna murrizten duten neurriak.

OSASUNAREN ESPARRUA**13. DIMENTSIOA.– OSASUNAREN EGOERA****39 13.1 Egungo osasun-egoera**

- Eguneroko bizitzan eragina duen zailtasunik gabe.
- Eguneroko bizitzan eragina duten zailtasunak ditu.
 - Gaixotasun fisikoa.
 - Buru-gaixotasuna.
 - Alkohol- eta droga-abusua.
 - Desgaitasuna.
- Eguneroko bizitzan eragin larria duten zailtasunak ditu.
 - Gaixotasun fisikoa.
 - Buru-gaixotasuna.
 - Alkohol- eta droga-abusua.
 - Desgaitasuna.

40 13.2 Arreta sanitarioaren premia

- Lehen mailako arreta prebentiboa edo gertakari puntualei erantzutekoa. Ez dute eraginik eguneroko bizitzan.
- Jarraipena behar du:
 - Osasun-zentroa (lehen mailako arreta).
 - Zonako buru-osasuneko zentroa edo ospitale psikiatrikoa.
 - Arreta espezializatu anbulatorioa, ospitaleko kanpo-kontsultak.
- Etengabeko arreta behar du:
 - Ospitaleratzea.
 - Susperraldia etxean.
 - Zainketa aringarriak behar ditu.

41 13.3 Tratamendu-premia

- Etengabeko tratamendurik gabe.
- Etengabeko tratamenduak.
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendekotasuna gainditzeko tratamendua.
- Etengabeko tratamendua eta ikuskapena.
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendekotasuna gainditzeko tratamendua.

41.1 13.3.a Aginduriko tratamenduaren jarraipena

- Tratamendua jarraitzen du:
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendekotasuna gainditzeko tratamendua.
- Tratamendua nekez edo iraunkortasunik gabe jarraitzen du:
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendekotasuna gainditzeko tratamendua.
- Ez du tratamendua jarraitzen:
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendekotasuna gainditzeko tratamendua.

13.A DIMENTSIOA.– OSASUN FISIKOA**42 13.A.1 Osasun fisikoaren egoera**

- Pertsonak ez du osasun-arazorik.
- Diagnostikaturik eta trataturik dago.
- Iraganiko zantzuak edo diagnostikoak ditu. Tratamendu egokirik gabe.
- Osasun-arazoak eta sufrimendu-ebidentzia ditu. Inolako tratamendurik gabe.

13.B DIMENTSIOA.– BURU OSASUNA**43 13.B.1 Tratamendu psikiatrikoa behar duen buru-patologia edo nahasmendua**

- Pertsonak ez du buru-osasuneko arazorik.
- Diagnostikaturik eta konpentsaturik dago. Hala badagokio, adierazi patologia edo nahasmendua.
- Balizko buru-patologia edo -nahasmenduko zantzuak ditu, diagnostikatu gabe. Adierazi:
- Tratamendurik gabeko buru-patologia edo -nahasmendutik eratorririko portaerak eta sufrimendu ebidentzia ditu:

BURU PATOLOGIA EDO NAHASMENDUA

- Haurtzaroan edo nerabezaroan hasiriko nahasmenduak.
- Delirium, dementzia, nahasmendu amnesikoak eta beste nahasmendu kognoszitibo batzuk.
- Gaixotasun medikoaren ondoriozko buru-nahasmenduak.
- Substantziei loturiko nahasmenduak.
- Eskizofrenia edo beste nahasmendu psikotiko batzuk.
- Gogo Aldartearen nahasmenduak.
- Antsietate-nahasmenduak.
- Nahasmendu aizunak.
- Nahasmendu disoziatiboak.
- Sexu-nahasmenduak eta sexu-identitatearen nahasmenduak.
- Loaren nahasmenduak.
- Elikadura-portaeraren nahasmenduak.
- Beste atal batzuetan sailkatu gabeko bulkaden kontrolaren nahasmendua.
- Egokitze-nahasmenduak.
- Nortasunaren nahasmenduak.
- Arreta klinikoa jaso dezaketen beste arazo batzuk.
- Homofobia internalizatutik edo transexualiatetik eratorririko gatazketarako arreta klinikoa jaso dezaketen beste arazo batzuk.

43.a 13.B.1.a Larritasun zeinuak – oinarrizko egokitze-nahasmenduak

- Ez du larritasun zeinurik, ezta oinarrizko egokitze-nahasmendurik ere.
- Nahiko zailtasun larriak ditu, oinarrizko egokitze-nahasmenduekin, honako hauei loturik:
- Arazo larriak ditu, oinarrizko egokitze-nahasmenduekin, honako hauei loturik:
OINARRIZKO EGOKITZE NAHASMENDUAK (bigarren eta hirugarren aukeratarako):
 - gogo-aldarte depresiboa.
 - antsietatea.
 - mistoa, antsietatearekin eta gogo-aldarte depresiboarekin.
 - portaeraren nahasmenduak.
 - nahasmendu emozionalak.
 - emozioen eta portaeraren alterazio mistoa.

13.C DIMENTSIOA.– DROGA-MENDEKOTASUNA ETA ADIKZIOAK**44 13.C.1 Droga-mendekotasunak / Adikzioak**

- Ez du adikziorik. Drogak kontsumitzen baditu, ez diote narriadurarik edo ondoezik eragiten.
- Drogekin abusatu egiten du, eta hainbat eragozpen sortzen dizkio.
- Droga-mendekotasuna du.

14. DIMENTSIOA.– LANERAKO EZINTASUNA, DESGAITASUNA ETA MENDEKOTASUNA**45 14.1 Desgaitasun-egoera**

- Desgaitasunik gabeko pertsona.
- Bere gaitasunaren urritasun esanguratsurik gabeko pertsona (% 32 arte).
- Desgaitasunetik eratorririko zailtasunak ditu (% 33tik % 64ra).
 - Fisikoa.
 - Sentsoriala.
 - Psikikoa.
 - Intelektuala edo mentala.
- Desgaitasunetik eratorririko arazo larriak ditu (% 65etik % 74rako tartean nahiz % 75etik % 100erako tartean balioetsia).
 - Fisikoa.
 - Sentsoriala.
 - Psikikoa.
 - Intelektuala edo mentala.

46 14.2 Lanerako ezintasuneko egoera

- Ez du lanerako ezintasunik
- Aldi baterako ezintasuna (ABE) edo iraunkor partziala du.
 - Luzaroko aldi baterako ezintasuna.
 - Ezintasun iraunkor partziala.
- Ezintasun iraunkorra du.
 - Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkorra du.
 - Edozein lanetarako ezintasun absolutua du.
- Baliaezintasun handiko ezintasun iraunkorra du.

47 14.3 Autonomia – Mendekotasuna: beste pertsona batzuen arreta-premia

- Ez du laguntza beharrik eguneroko jardueretarako.
- Beste pertsona batzuen arreta behar du jarduera batzuetarako:
- Beste pertsona batzuen arreta iraunkorra behar du jarduera batzuetarako:
 - JARDUERA ZERRENDA (bigarren eta hirugarren erantzunak):
 - Norbera zaintzeko oinarrizko jarduerak: ohetik altxatzea, etzatea, janztea, elikatzea eta higiene personala.
 - Eguneroko bizitzako jarduerak: janaria prestatzea, etxea garbitzea, etxeko gailuak erabiltzea,...
 - Etxe barruan ibiltzea: ohea, gurpildun aulkia, eskailerak, ibiltzeko zailtasunak...
 - Etxetik kanpo ibiltzea: garraiorako irisgarritasuna, gurpildun aulkia, makuluak...
 - Zailtasunak komunikazioan: hitzak artikulatzeko gaitasuna balioesten da, ez komunikazioaren koherentzia. Minusbaliotasun fisikoen, gaixotasun degeneratiboen eta abarren ondorio izan daiteke.

EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA – osasun-esparrua**T.13 T.17 Gizarte Segurantzaren asistentzia sanitarioa**

- Osasun-txartela dauka eta prestazio guztiak bermaturik ditu.
- Eskaera izapidetzen ari da, eta ustez baiezkoa emango diote.
- Ez da onuradun, larrialdi-kasuko arreta besterik ez du bermaturik.

T.14 T.21 Desgaitasuna duen pertsona izateagatik dituen eskubideei buruzko egoera

- Ez dagokio.
- Onarpena badu. Onarturiko mailaren arabera eskubideez baliatzen da.
- Behin-behineko egoera.
 - Onarpena izapidetzen ari da. Ez du eskubiderik baliatzen.
 - Berrikuspena izapidetzen ari da.
- Ez du onarpenik, eta ez du eskubiderik baliatzen.
 - Desgaitasuna du. Ez du onartuta, administrazio-eskakizunak ez dituelako betetzen.
 - Desgaitasuna du, baina ez du balioetsia izan nahi.

T.15 T.19 Mendekotasunaren eskubideei buruzko egoera

- Ez dagokio.
- Onarpena badu. Onarturiko mailaren arabera eskubideez baliatzen da.
- Behin-behineko egoera.
 - Onarpena izapidetzen ari da. Ez du eskubiderik baliatzen.
 - Berrikuspena izapidetzen ari da.
- Ez du onarpenik, eta ez du eskubiderik baliatzen.
 - Mendekotasuna du. Ez du onartuta, administrazio-eskakizunak ez dituelako betetzen.
 - Mendekotasuna du, baina ez du balioetsia izan nahi.

ESPARRU SOZIALA**15. DIMENTSIOA.– ONARPEN SOZIALA ETA EGUNEROKO BIZIKIDETZA KOMUNITARIOA****48 15.1 Eguneroko bizikidetza komunitarioa**

- Bere ingurunean onarturiko pertsona da.
- Nolabaiteko zailtasunak ditu, bere ingurunean errefusatu egiten dutelako.
- Arazoak ditu, bere ingurunean errefusatu egiten dutelako.

49 15.2 Onarpen soziala eta estigmatizazioa komunitatean

- Onarpen soziala lurraldean. Estigmatizatu gabeko kolektibo edo talde batekoa da pertsona hori.
- Estigmatizaturiko kolektibo edo talde batekoa da. Ez dago identifikaturik horrelako kolektibo edo talde bateko kide gisa.
- Estigmatizaturiko kolektibo edo talde batekoa da. Horrelako kolektibo edo talde bateko kide gisa identifikaturik dago. Onarpen sozial txikia edo ezdeusa lurraldean. KASUAK:
 - Lurraldean nabarmen arbuatzen den portaera-eredua.
 - Familia-disfuntzioa.
 - Instituzionalismoa.
 - Toxikomania.
 - Beste adikzio batzuk.
 - Prostituzioa.
 - Delinkuentzia.
 - Askatasuna galdu duten pertsonak, gaur egun edo iraganean.

- Immigrazioarekiko gaitzespen soziala, arrazakeria lurraldean.
 - Aniztasun etnikoa.
 - Kultura- edo erlijio-aniztasuna.
 - Immigrazioa.
- Gaitzespen soziala: adinagatiko eta generoagatiko diskriminazioa.
 - Adinagatiko diskriminazioa.
 - Generoagatiko diskriminazioa.
 - Sexu-aukera edo -orientabideagatiko diskriminazioa: transexualitatea, transgenerismoa eta trabestismoa.
- Gaitzespen soziala bizikidetzako, harremanetarako eta osasun-egoera moduekiko.
 - Estigma duen gaixotasuna: HIESa, buru-gaixotasuna.
 - Desgaitasuna.
 - Pasadizokoak, eskaletza.
 - Sexu-aukera edo -orientabidea.
 - Bizi-eredu alternatiboak.

16. DIMENTSIOA.– GIZARTE ETA ARAU INGURUNERA EGOKITZEA

50 **16.1** **Portaerak gizarte- eta arau-ingurunera egokitzeari buruzko egungo egoera**

- Egokitzapen soziala.
- Portaera sozial problematikoak edo desegokituak.
- Delinkuentzia, hutsegite eta/edo delituak egitea.

17. DIMENTSIOA.– HARREMAN SOZIALAK IZATEKO AUKERA ETA GIZARTEAN PARTE-HARTZEA.

51 **17.7** **Harreman eta bizitza sozialeko beharrianaren gogobetetasun-egoera**

- Isolamendu sozialik gabe.
- Gizarte-sareak ahultzea.
 - Iraganeko harremanei loturikoak.
 - Mugikortasun-zailtasunak.
 - Komunikazio-zailtasunak.
 - Gizarte-sareetan jarduteko denbora gutxi.
 - Harremanak soilik senitartekoekin, baina isolamendurik gabe.
 - Harremanak soilik senitartekoekin, etxeko indarkeria jasaten duelako.
 - Erreferentziazko talde homogeenekin eta komunitatean gutxi integratuta daudenekin bakarrik ditu harremanak.
 - Oso gutxi edo bat ere ez integratuta dauden talde marginal edo sektarioekin bakarrik ditu harremanak.
- Isolamendu soziala.